

KOSTUEN EGITURA:

Enpresa honek printzipioz ez ditu hainbeste kostu izango, izan ere, ez degu denda fiskorik behar. Baina badaude kostu aldakorrak eta kostu sozialak. Adibidez, aplikazioa egiten eta diseinatzen duena dago, hau da, informatikoa kontratatzeak eta serbidoreak egiteak kostuak edukiko ditu. Ondoren langileei ere ordaindu beharko zaie, baina soldatak aldakorrak izango dira zenbat banaketa egin dituzten arabera, hala ere, minimo bat egongo da guztientzat. Gainera, promozioa ere kostu garrantzitsua izango da, beharrezkoa delako jendeak ezagutzea. Beraz, iragarkiak sare sozialetan eta kalean jarriko ditugu uste dugulako jende gehiagok ezagutuko duela eta gainera infleunzer batzuk kontratatuko ditugu jende gehiagok ezagutzeko.

Kostu sozialak ere egongo dira, adibidez langile batek istripu bat edukitzen badu segurua ondainduko zaio beraz, kostua handiagoa izango da. Estuari ordaindu beharko zaio aplikazioa egiteagatik eta honekin batera beharrezkoak diren zerga guztiak ordaindu beharko dira. Honek ere, kostuak handitu egingo ditu. Gainera, kostu finkoak ere badaude. Langileentzat beharrezkoa izango den materiala, esaterako motorrak eta bizikletak. Honekin batera, peajea, gasolina eta ibilgailuen segurua egongo da.

Ondorioz, beste enpresekin alderatuta gure kostuak txikiagoak izango direla suposa dezakegu, baina ala eta guztiz ere, badaude ordaindu beharreko gauzak.